



SAGARROI ARRUNTA

Erinaceus europaeus

TAMAINA

18-31 zm

ITXURA

Sagarroiak, silueta borobila du mutur zorrotz batekin.

Bizkarra, saihsak eta kopeta 2 eta 3 zm arteko luzera duten punta zuriko arantza marroiz estaliak ditu. Gorputzaren gainerakoa ile marroi-grisez estalia da.

NOLA IDENTIFIKATU?

Bizi diren sagarroiak xerkatu edo gorotzak edo lehertu sagarroiak



NOIZ?

Udaberritik udazkenera
Ilunabarrean

NON?

- > Baratz/parkeetan
- > Hesietan
- > Laborantza lurretan
- > Oihan bazterretan

AURKEZPENA

BIZI ESPERANTZA

2 urte batezbesteko (8 urteraino)

ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Orotarik jaten du, baina nagusiki haragijalea da (bareak, barraskiloak...).

Sagarroiak nahiko ikuspegi ahula du, baina entzumena eta usaimena oso garatuak ditu.

Aski bakartia da, eta bola batean biribiltzen da harraparietatik babesteko. Hibernatzen duten animalietako bat da.

Emeak bi umetik zazpita izaten ditu, urtean behin edo bi aldiz.

BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Sagarroien bizi-eremua 1,8 eta 2,5 hektarea artekoa da, eta ar batek 50 hektarearainoko eremua har dezake.

Hesi basatien edo egur pilen desagertzeak sagarroiaren biziraupenari eta ugalketari kalte egiten dio, batez ere pestiziden erabilera intentsiboko monolaborantza eremu zabalen sortzearekin.

Gainera, azpiegiturek sortzen duten habitaten zatitzeak sagarroien zirkulazio askea oztopatzen du. Trafiko-talkek adibidez, batez ere arrak hunkitzen dituzte, eta, epe luzera, armeen proportzioen desoreka sor dezakete populazioetan.